

Bidaiarien sarrerak %9 eta gaualdiak %11 gehitu ziren 2005eko abuztuan

Ekainean, uztailan eta abuztuan 37.000 bidaiari-sarrera gehiago erregistratu ziren 2004ko aldi berean baino, hau da, %7 gehiago.

Eustatek eskainitako datuen arabera, 2005eko abuztuan, 213.066 bidaiari-sarrera erregistratu ziren Euskal AEko hotel-establezimenduetan, aurreko urteko hil berean baino ia 18.000 sarrera gehiago, hots, %9 gehiago. Bidaiarien sarrerak gehitu egin ziren Araban (%21) eta Bizkaian (%20), baina %4 gutxitu ziren Gipuzkoan, 2004ko abuztuko datuen aldean.

Estatutik etorritako bidaiarien sarrerak %10 igo ziren eta atzerriko bidaiarienak %8. Estatuko zein atzerriko bisitariak gehitu egin ziren Araban (%27 eta %7, hurrenez hurren) eta Bizkaian (%23 eta %15, hurrenez hurren); baina Gipuzkoan lehenengoak urritu egin ziren (%-7) eta bigarrenak gehitu (%2).

Estatutik etorritako bidaiarien artean, gehitu egin ziren, besteak beste, Kataluniatik, Andaluziatik, Aragoitik, Gaztela-Mantxatik, Galiziatik eta Gaztela eta Leondik etorritakoak. Gutxitu egin ziren, berriz, Madrildik, Errioxatik eta Ceuta eta Melillatik etorritakoak. Atzerriko bidaiarien artean, gehitu egin ziren Frantziatik, Alemaniatik, Erresuma Batutik, AEB-Kanadetatik eta Belgikatik etorritakoak; urritu egin ziren, aldiz, Italiatik, Portugaldik, Finlandiatik eta Suediatik etorritakoak.

2005eko abuztuan erregistraturiko gaualdiak 471.860 izan ziren, iazko abuztuan baino %11 gehiago, hau da, 47.000 gaualdi gehiago izan ziren. Gaualdiek urte arteko bilakaera positiboa izan zuten hiru lurraldeetan: %19 igo ziren Araban, %18 Bizkaian eta %3 Gipuzkoan.

Euskal AE osotara hartuta, 2005eko abuztuan bidaiarien batez besteko egonaldia %2 luzatu eta 2,17 egunetik 2,21era pasa zen.

Plazakako eta gelakako betetze-maila ere %7 igo ziren Euskal AE osoan. Plazakako betetze-maila %69,25etik %73,88ra igo zen eta gelakakoa, %72,46tik %77,63ra. Hobekuntza horrek hiru lurraldeetan izan zuen eragina.

Ekainean, uztailan eta abuztuan, Euskal AEn, %7 gehitu ziren bidaiarien sarrerak 2004ko udaren aldean, hau da, 37.000 sarrera gehiago izan ziren: Bizkaian %15 gehitu ziren eta Araban %5; Gipuzkoan, osteran, aurreko urteko mailari eutsi zioten. Gaualdiak %9 gehitu ziren aldi berean, hots, aurreko urtean baino 96.000 gaualdi gehiago izan ziren. Gaualdiak hiru herrialdeetan gehitu ziren. Batez besteko egonaldia eta betetze-maila %2 eta %6 hobetu ziren, hurrenez hurren, udako hiru hileetan.

NEKAZALTURISMOA:

Gehitu egin ziren bidaiarien sarrerak (%16) eta egonkortu gualdiak (%0,0)

Euskal AEko nekazalturismoko establezimenduetan, 12.317 bidaiari-sarrera zenbatu ziren joan den abuztuan, aurreko urteko hil berean baino %16 gehiago: %17 murriztu ziren Araban, baina %38 gehitu ziren Gipuzkoan eta %7 Bizkaian. Estatutik etorritako bisitariak %20 gehitu ziren Euskal AEn, baina atzeritik etorritakoak %5 gutxitu ziren.

Euskal AEko nekazalturismoko establezimenduetan egindako gualdiak 59.198 izan ziren 2005eko abuztuan, hots, egonkortu egin ziren aurreko urteko aldi beretik. Urte arteko hazkunde-tasa positiboak izan ziren Bizkaian (%8) eta Gipuzkoan (%3), baina negatiboa Araban (%-23).

Bidaiariko batez besteko egonaldia 5,57 egunetik 4,81 egunera murriztu zen azkeneko abuztuan.

Plazakako betetze-maila %74,54tik %70,36ra murriztu zen, eta gelakako betetze-maila %77,77tik %75,70era.

2005eko **ekainean, uztailean eta abuztuan**, Euskadiko nekazalturismoetan, iazko aldi berean baino %10 bidaiari-sarrera gehiago izan ziren, hots, 3.000 sarrera gehiago. Gualdiak %5 hazi ziren aldi berean eta Gipuzkoari (%9) eta Bizkaiari (%2) modu positiboan eragin zien, baina Arabari (%-9) modu negatiboan.

Informazio gehiago:

Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tlf:+34-945-01 75 00 Faxa:+34-945-01 75 01 Posta elek: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tlf:+34-945-01 75 06 Faxa:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp

1. taula: hileko emaitzak

	EUSKAL AE					ARABA					BIZKAIA					GIPUZKOA				
	08/2005	%	08/2004	%	Δ%	08/2005	%	08/2004	%	Δ%	08/2005	%	08/2004	%	Δ%	08/2005	%	08/2004	%	Δ%
HOTEL-ESTABLEZIMENDUAK																				
GAUALDIAK	471.860	100	424.075	100	11	63.847	100	53.687	100	19	199.922	100	168.977	100	18	208.091	100	201.411	100	3
Estatukoak	319.388	68	293.440	69	9	50.451	79	41.646	78	21	130.150	65	106.578	63	22	138.787	67	145.216	72	-4
Atzerrikoak	152.472	32	130.635	31	17	13.396	21	12.041	22	11	69.772	35	62.399	37	12	69.304	33	56.195	28	23
Hiriburua	287.596	61	255.645	60	12	42.976	67	35.586	66	21	131.769	66	110.818	66	19	112.851	54	109.241	54	3
Kostaldea	65.050	14	61.852	15	5	-	-	-	-	-	26.084	13	23.857	14	9	38.966	19	37.995	19	3
Barnealdea	119.214	25	106.578	25	12	20.871	33	18.101	34	15	42.069	21	34.302	20	23	56.274	27	54.175	27	4
BIDAIARIEN SARRERAK	213.066	100	195.188	100	9	32.436	100	26.869	100	21	96.104	100	80.344	100	20	84.526	100	87.975	100	-4
Estatukoak	137.483	65	125.383	64	10	23.831	73	18.833	70	27	58.834	61	47.826	60	23	54.818	65	58.724	67	-7
Atzerrikoak	75.583	35	69.805	36	8	8.605	27	8.036	30	7	37.270	39	32.518	40	15	29.708	35	29.251	33	2
Hiriburua	131.623	62	117.505	60	12	21.430	66	17.102	64	25	67.502	70	55.002	68	23	42.691	51	45.401	52	-6
Kostaldea	24.899	12	24.176	12	3	-	-	-	-	-	10.921	11	9.567	12	14	13.978	17	14.609	17	-4
Barnealdea	56.544	27	53.507	27	6	11.006	34	9.767	36	13	17.681	18	15.775	20	12	27.857	33	27.965	32	0
BATEZ BESTEKO EGONALDIA	2,21		2,17		2	1,97		2,00		-2	2,08		2,10		-1	2,46		2,29		7
BETETZE-MAILA PLAZAKA	73,88		69,25		7	62,79		55,00		14	71,57		63,74		12	80,76		80,68		0
Hiriburua	77,58		69,45		12	62,90		52,75		19	76,27		65,16		17	87,05		83,64		4
Kostaldea	75,21		78,46		-4	-		-		-	70,59		73,29		-4	78,66		82,09		-4
Barnealdea	65,69		64,43		2	62,57		60,01		4	60,42		54,89		10	71,69		74,46		-4
BETETZE-MAILA GELAKA	77,63		72,46		7	65,79		57,55		14	75,32		67,58		11	86,41		84,28		3
Hiriburua	79,84		72,27		10	67,51		57,01		18	77,46		68,27		13	91,50		86,93		5
Kostaldea	81,20		82,93		-2	-		-		-	76,58		80,54		-5	84,68		84,10		1
Barnealdea	71,10		68,32		4	61,63		59,03		4	69,87		61,10		14	77,75		79,23		-2
NEKAZALTURISMOA																				
GAUALDIAK	59.198	100	58.946	100	0	6.869	100	8.961	100	-23	18.405	100	16.978	100	8	33.924	100	33.007	100	3
Estatukoak	51.303	87	50.754	86	1	6.036	88	7.597	85	-21	15.401	84	13.465	79	14	29.866	88	29.692	90	1
Atzerrikoak	7.895	13	8.192	14	-4	833	12	1.364	15	-39	3.004	16	3.513	21	-14	4.058	12	3.315	10	22
BIDAIARIEN SARRERAK	12.317	100	10.580	100	16	1.793	100	2.168	100	-17	3.646	100	3.413	100	7	6.878	100	4.999	100	38
Estatukoak	10.899	88	9.095	86	20	1.564	87	1.928	89	-19	3.193	88	2.630	77	21	6.142	89	4.537	91	35
Atzerrikoak	1.418	12	1.485	14	-5	229	13	240	11	-5	453	12	783	23	-42	736	11	462	9	59
BATEZ BESTEKO EGONALDIA	4,81		5,57		-14	3,83		4,13		-7	5,05		4,97		2	4,93		6,60		-25
BETETZE-MAILA PLAZAKA	70,36		74,54		-6	41,97		53,23		-21	70,60		70,67		0	81,36		86,35		-6
BETETZE-MAILA GELAKA	75,70		77,77		-3	43,90		53,66		-18	75,07		75,43		0	87,94		88,21		0

Iturria: EUSTAT